



EUROPAKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAREN ESPARRUAN IKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

1. kurtsoko moduloren bat gainditu gabe duten ikasleek ez dute diru-laguntza hau eskatzerik.

Hautagai bakoitzak lortzen duen azkeneko puntuazioa jarraian adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen baturak osatuko du, gehienez ere 10 punturekin:

1. %50: departamentuko balioztapena: ikaslea matrikulatuta dagoen ikastaroko tutore eta irakasleen balioztapena kontuan hartuko da. Negatiboki baloratuko da ikasleak jokaera ezegokia ziurtatzen duen txostenik badauka eta positiboki, ordea, hurrengo irizpideak: (gehienez 5 puntu)

- **Erantzunkizuna eta ardura**
- **Autonomia eta ekimena**
- **Errespetua**
- **Ikasgelara joatea**
- **Puntualitatea**

2. %40: espediente akademikoa: lehengo mailan egindako eta ebaluatutako modulu guztien batez besteko nota. (gehienez 4 puntu).

3. %10: ingelesez egindako moduluak, edo bestela, irakasleak esleitutako hizkuntza-maila. (gehienez puntu 1)

Hautaketa egin ondoren, emaitzak interesdunei jakinaraziko zaizkie. Horrez gain, hautatuen zerrenda nazioarteko sailaren webgunean argitaratuko da, baita erreserba-zerrenda ere.

Erasmus+ programaren ikastetxeko arduradunak kanpo utz ditzake aukeratutako ikasleak, baldin eta mugikortasunaren aurreko prozesuan beren konpromisoak betetzen ez badituzte: dokumentazioa entregatzea, bileretara etortzea, ...

Azken esleipena heziketa-ziklo bakoitzean izena emandako ikasle-kopuruaren eta eskura dauden enpresen kopuruaren arabera izango da.